

«Europako ekonomiaren oinarrizko arazoa da aberastasunen banaketa bidegabea»

Jesus Soubiesek hitzaldia emango du gaur, 18:00etan kultur etxean, Jose Maria Agirrerekin batera idatzi duen 'Por un sistema público de pensiones' liburuan oinarrituta. Euskeraz eta gaztelaniaz egingo da saioa.

ASTIGARRAGA PENTSIODUNAK

Arabako pentsiodunen plataformako kideak dira Jesus Soubies eta Jose Maria Agirre, eta *Por un sistema público de pensiones* liburua idatzi dute. Gaurkoan, horri buruzko azalpenak ematera gerturatuko da Soubies kultur etxera, arratsaldeko 18:00etan, Udalak eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak gonbidatuta.

Saioa euskeraz eta gaztelaniaz egingo da.

«Koordinatzeko modua pentsiodunen garaipenetako bat izan da»

Autoreen esanetan, aipatutako liburua da «Hego Euskal Herriko pentsionista ugariaren mobilizazio, bilera, prentsa ohar, eztabaida eta lanaren fruitua; milaka pentsiodunek eskubideak defendatu eta argudiatzeko egindako

ahaleginaren fruitua».

Era berean, azpimarratu dute plataforma desberdinen artean izan diren «armonia eta batasuna». Diote, «izandako mugekin ere, koordinatzeko modua pentsionisten mugimenduaren garaipenetako bat» izan dela, «batasuna eta pluraltasuna bermatu» dituelako.

Liburuan zehar, Soubies eta Agirrek egungo egoera ekonomikoaren deskribapena egiten dute. «Europako eta munduko ekonomiaren arazoa da ekonomia sistema bera, eta aberastasunen banaketa bidegabea. Europa hegoaldeko herrialdeek duten egoera hainbaten interesen arabera ekonomia politikak bultzatu zuten bezala, 'pentsioen eskasia' sortu dute hainbat gobernuren, bereziki eskuinekoen, lan eta politika ekonomia jakin batzuek». **K**



Jesus Soubies ariko da gaur, pentsioen inguruan.

Ekoizleen zerrenda osatzeko bilera egingen da gaur

Ganbaran egingen da, 18:30etan. Bertako produktuak sustatu eta herritarren arteko salerosketak bultzatu nahi dira ekimenarekin.

GOIZUETA CEDERNA ETA UDALA

Lehendabiziko sektoreko ekoizleak bilerara deitu dituzte gaur Udalak eta Cederna Garalur, Nafarroako Mendialdeko tokiko ekintza-taldeak. Bilera 18:30etan egingen da, udaletxeko ganbaran.

Zerrenda, tokioa sustatzeko Gaurko bilerak herriko produktuen zerrenda osatzea dauka

Produktuen berri izateko, liburuxka edo eskuorri bat argitaratuko da.

helburu. Horrela, parte hartzera animatu dituzte etxeko bazarrunak, barazkiak, oilaskoak, arkumeak... ekoizten dituzten abeltzain eta nekazariak.

Aurreneko pausu honekin, herrian bertan dauden produktuak zein diren ezagutu nahi da. Horrekin batera, bertako produktuak sustatu nahi dira, eta herritarren arteko salerosketak bultzatu. Era berean, soberakinei irtenbidea ematea ere bada asmoetako bat.

Informazioa, liburuxkan bilduta

Helburu horiek guztiak lortzeko, liburuxka bat argitaratzeko asmoa azaldu dute Udalak eta Cederna Garalurrek. Bileran bertan biltzen den informazioa-

rekin liburuxka edo eskuorri bat osatuko da, eta, bertan, herriko ahalik eta produktu gehien azaltzea nahi dute.

Produktuak ekoizleka salkatuta agertuko lirateke, eta nola eskuratu daitezkeen ere azalduko da bertan.

Azalpenak emateko, teknikaria

Asmo guztien berri emateko, eta ekimenaren pausuak zein diren zehazteko, Amañueta, garapen agentea gerturatuko da gaurko bilerara. Parte hartzeko dei egin diete ekoizleei. **K**



Sarrerak, hainbat emanalditarako

HERNANI LANGILEK 50 URTE

Urteurrenaren bueltan, emanaldi nagusia martxoaren 14rako antolatu du Langile ikastolak, 19:00etarako, eta 22:30etarako, Kilimak, Trini-Fox eta Ainhoa Larrañagaren kontzertuak. Ekitaldi bakoitzarako sarrerak bost eurotan erosi daitezke Biterin gaur eta bihar, 18:00etatik 19:30etara.

Giza-katerako, izena

ASTIGARRAGA DBH ORAIN

Martxoaren 29an DBHren aldeko giza-katea egingo da, eta gaur izena eman ahal izango da, 16:00etatik 17:30etara eskolan. Ostiralean, DIAko parkean izango da aukera, 17:00etatik 19:00etara.

Gaur arte, harategia hartzeko

GOIZUETA HARATEGIA

Ximon harategia dagoen lokala Udalarena da, eta Ximonek bertako gidari izateari utziko dionez, negozioarekin jarraitzeko aukera zabaldu du Udalak. Lokala alokairuan hartzeko informazioa gaur arte lortu daiteke, 948 51 40 06an edo udal bulegoan.

Haur eta familiek, literatura saioa

ASTIGARRAGA LITERATURA

Liburu baby kluba gaur elkartuko da 10:30etan liburutegian. Helburua da 0-3 urteko haurrak eta familiak literatura eta artearekin lotzea.

Kultur etxearen izena, botoen mende

ASTIGARRAGA KULTURA

Herritarrek *Manttoni* eta *Erribera* izenak proposatu dituzte kultur etxe berrirako. Bien artean bozkatu ahal izango da Udalaren webgunean, martxoaren 9ra arte.

 **Berrikuntza: ostiral eguerdian irekita enkarguz**

EULA

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo Tolare sagardotegia Asteazkenetik larunbatera gauzez Ostiral, larunbat eta igandean eguerdian ere bai Berogailua

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA Hernaniko Portu auzotik 5 minututara **943 55 27 44** www.eulasagardotegia.com

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...


MAPFRE ASEGURUAK

Andra kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

 **ITXASPE**

Arrandegia
Antziola 5
Tel: 943 330 365
Mobiila: 665 735 224
20120 Hernani

ezkati



ileapaindegia
Ituregi, 4
Hernani
943 55 65 96
Hartu ordua



GAUR Goizean euria egingo du oraindik, baina gutxiago, eta eguerditik aurrera atertzera egingo du. Hego-mendebaldeko haizearen eraginez epeldu egingo du. **Min.9° / Max.18°**



BIHAR Euria egingo du, dezente, eta zaparrada mardulak botako ditu. Hai-zeak ere zakar joko du eta traba egingo du. Tenperatura jaitxi egingo da, nabarmen. **Min.11° / Max.16°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Izena eman edo itxaron-zerrendan sartzeko aukera, apirilera

KZ Guneko apirilera ikastaroen programazioa argitaratu da. Doan dira.

HERNANI KZ GUNEA

Martxokoak dagoeneko hasita, apirilera ikastaroen programazioa prest dauka KZ Gunea. Izena eman edo itxaron-zerrendan tokia hartzeko epea ireki du.

Bulegoa irekita

Ikastaroetan izena emateko, kz-gunea.eus webgunera jo daiteke. Baina laguntza nahi izanez gero, edo zalantzak argitzeko, Biteriko bulegora jo daiteke aste egunetan, 09:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara. Telefonoz 943 02 36 50 zenbakira deitu edo tutor.hernani@kz-gunea.net helbide elektronikora ere idatzi daiteke.

Ikastaro guztiak doan dira, eta ohi bezala, aurrez aurre egitekoak edota urrundik egitekoak izango dira aukeran. **K**

KOMUNIKAZIOA

AURREZ AURREKOA
WhatsApp. Smartphonean. Apirilaren 6tik 7ra, 16:00-18:00, euskeraz.

OINARRIZKO FORMAKUNTZA

AURREZ AURREKOA
Oinarrizko internet. Nabigatu eta posta elektronikoa bidali. Apirilaren 1etik 23ra, 11:00-13:00, euskeraz.

Mekanografia. Apirilaren 24tik 30era, 11:00-13:00, euskeraz.

IRUDIA ETA BIDEOA

AURREZ AURREKOA
Argazkiak. Argazkiei ukituak zure Smartphonearekin. Apirilaren 7 eta 8an, 09:00-11:00, euskeraz.

AISIA ETA ENTRETENIMENDUA

AURREZ AURREKOA
Zure bidaia planifikatu. Apirilak 1- 3, 16:00-18:00, euskeraz.

URRUNEKOA

Wikiloc. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak, apirilaren 20tik maiatzaren 6ra, 20 ordu, gaztelaniaz.

OFIMATIKA

AURREZ AURREKOA
LibreOffice Calc. Zure kalkulorriak sortu. Apirilaren 1etik 3ra, 09:00-11:00, euskeraz.

PRODUKTIBITATEA

AURREZ AURREKOA
Google. Ikasi antolatzen eta kudeatzen, Google aplikazioekin. Apirilaren 20tik 29ra, 16:00-18:00, euskeraz.

SARE SOZIALAK

URRUNEKOA
Sare sozialak. Facebook, Twitter eta YouTube. Apirilaren 20tik maiatzaren 20ra, 40 ordu, gaztelaniaz.

Marka pertsonalak eta LinkedIn.

Apirilaren 20tik maiatzaren 6ra, 20 ordu, gaztelaniaz.

Pinterest. Apirilaren 20tik 29ra, 4 ordu, gaztelaniaz.

e-ADMINISTRAZIOA

AURREZ AURREKOA
Online izapideak Osakidetzaekin. Apiriaren 27tik 28ra, 09:00-11:00, euskeraz.

Taldea egiteak, «arrastoa»

HERNANI ESKUBALOIA

Emaitzetatik haratago begiratu behar dela aldarrikatu du Hernani Eskubaloi Taldeak. «Taldea egiteak arrastoa uzten du; elkarri animoak emateak, irabazteak adina pozten du». Horregatik, Anexo taldeak omenaldia egin dio asteburuan, osatzeko denbora beharko duen lesio bat daukan jokalaritari, animoak emateko.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

LORENZO BEITALARRANGOITIA SASIETA

Besarkada bero bat Marian eta Pelosi.

PITTU ETA ONDDI IBILBIDEKO ZUEN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko martxoaren 4an

JOXE JAUREGI IRIARTE

Gure langile ohi eta gure lankide inakiren aita

BALBIKO LANKIDEAK

Hernanin, 2020ko martxoaren 4an

XIII. URTEURRENA

Uxue Contreras Izagirre Hegoi Imaz Aranzadi

2007ko martxoaren 4an hil ziren istripuz, 19 urte zituztela.

- Goian beude -
Beti gure bihotzetan egongo zarete

ETXEKOAK

Haien animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte

GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den **Urtebetetzeko Mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko martxoaren 4an



Hernaniko talde barneratzaileak saio politarekin gozatu zuen igandean, Landaren.

«Talde barneratzailea etengabe hazten ari da inklusiorako urratsak emanez»

Hernaniko Errugbi Elkarteko talde barneratzaileak topaketak egin zituen igandean. Hurrengo zitak Getxon eta Almerian dituzte.

HERNANI ERRUGBIA

Topaketa bereziak antolatu zituzten beste behin igandean Hernani Errugbi Elkartek eta Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak. Oinez ibiltzen diren

desgaitasuna duten haur eta gazteei zuzendutako topaketak egin ziren Landaren, eta bertaratuak hainbat joko eta ariketa egin zituzten, taldeko begiraleekin batera. Bazkariarekin boro-bildu zuten eguna.

Honekin, klubak adierazi du «talde barneratzailea gehiago ezagutarazi eta jokalar berriei dei egin» nahi izan ziela. «Talde barneratzailea etengabe hazten ari da inklusiorako urratsak emanez».

Ildo horretatik jarraitzeko, hurrengo hitzorduak ere zehaztu ditu: Bultza ligako Getxoren aurkako partidua eta maiatzean Almerian jokatu duen txapelketa. **K**

IRAGARKI MERKEAK

Denda batean langile bila gabilza Hernanin. Ezinbesteko baldintzak euskeraz jakitea, hernaniarra izatea eta emakumea. **Deitu: 618 694 678 edo whatsapp.**

60 urteko emakume euskalduna alokatzeko pisu bila Hernanin. Nominak eta informak dituen. 2 gelakoa eta 650€ gehienez. **Deitu: 688 640 381**

Astigarragako sagardotegi batean kamarer@ baten bila gabilza. Urte osoko lana. **Email: landepartamendua@gmail.com**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU eguerditan gazteekin aritzeko

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:

dobera@dobera.eus

Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behe 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionatutako formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

BALORATUKO DA:

- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

ESKAINIKO ZAIJO:

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formala

Baldintzak betetzen dituzten arteen elkarrizketak egin eta bai aukeratu du